

Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 3,5 igo dira 2025eko bigarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmentak % 1,1 igo dira.

Eustaten datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako merkataritzaren sektoreko salmentak % 3,5 handitu dira 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren efektuak prezio finkoetan ezabatu ondoren. Salmenten urte arteko hazkundera, zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, % 2,6koa izan da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenten indizea % 1,1 igo da 2025eko bigarren hiruhilekoan.

≡ Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)

Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

2024ko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoen salmentak % 1,7 igo dira *Elikaduran*, % 3,7 *Gainerako produktuetan* eta % 14,1 *Automobilgintzarako erregaian* sektorean.

2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, urtaroen eragina kenduta eta prezio finkoetan, *Elikaduran*, *Gainerako produktuetan* eta *Automobilgintzarako erregaian* salmentak % 0,7, % 1,3 eta % 2,2 hazi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,5	1,1	3,1
Araba/Álava	5,5	1,2	4,6
Bizkaia	3,5	1,3	2,9
Gipuzkoa	2,6	0,7	2,8
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	1,7	0,7	2,6
Elikagaien saltoki espezializatuak	-3,4	-0,7	-0,2
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,6	2,2	3,6
Gainerako produktuak	3,7	1,3	2,4
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	3,3	0,9	1,7
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	3,7	0,9	3,4
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	5,5	1,0	4,8
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	2,4	1,0	-0,5
Automoziorako erregaia	14,1	2,2	9,4
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	2,6	1,0	2,5
Langileria-indizea			
Euskal AE	1,2	0,5	0,6

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

At/A(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2025eko Abuztuaren 6a

Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea

Elikaduraren sektorearen barruan, salmentak % 3,6 hazi dira *Elikagaiak, edariak eta tabakoa nagusi diren merkataritza ez-espezializatuan* (batez ere, supermerkatuak eta hipermerkatuak). Hala ere, *Elikaduran, edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzan* (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) salmentak % 3,4 jaitsi dira 2024ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Gainerako produktuen salmentei dagokienez, Pertsonen ekipamenduan espezializatutako sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak) salmentak % 3,3 hazi dira, Etxeko ekipamenduan espezializatutako sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne) % 3,7, Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako sektorean (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak) % 5,5 eta Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatueta (korrespondentzia edo Internet) % 2,4.

2025eko bigarren hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak urte arteko igoera izan du hiru lurralde historikoetan. Araban indizea % 5,5 igo da, Bizkaian % 3,5 eta Gipuzkoan % 2,6.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten bilakaera ere positiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Araban hiruhileko arteko % 1,2ko igoera izan da, Bizkaian % 1,3koa eta Gipuzkoan % 0,7koa.

2025eko bigarren hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean landunen kopurua % 1,2 handitu da aurreko urteko bigarren hiruhilekoaren aldean. 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, hobekuntza % 0,5ekoa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegi-efektuen serie zuzenduetatik eta hilabete arteko aldaketetatik abiatuta kalkulatzen dira, urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 95,95eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62